



ZUZENBIDE PROZESALA

ZUZENBIDE JURISDIKZIONAL ZIBILEAN ZEHAR BIDAIA AZKARRA EDO BERE OINARRIZKO ELEMENTUAK

Ixusko ORDENANA GEZURAGA

AURKIBIDEA: I. Lerro hauen helburua eta ikasgaiak sakondu aurretik jakin beharrekoak. 1. Sarrera. 2. Zuzenbide materiala eta zuzenbide formala. 3. Gatazka juridikoa orokorrean eta gatazka pribatua bereziki. 4. Gatazkek ebazteko beharra eta horretarako bideak: jurisdikzioa eta ADR. 5. Bide jurisdikzionalaren ardatza: Espainiar Konstituzioaren 24. artikulua. 6. Epaileek eskaintzen dituzten 3 babes motak. 7. Hiru babes motak eskatzeko demandak, bere uziak eta jarraitu beharreko prozesuak. **II. Prozesu zibila arautzen duen legea: Prozedura Zibileko Legea (PZL).** **III. Jarraitu beharreko prozesua: adierazpeneko babes eskaintzeko erabiltzen diren prozesuak: arruntak (arrunta bereziki arrunta eta hitzezkoa) eta bereziak.** **IV. Zein epaitegik ezagutuko du kasua? Jurisdikzioa eta eskumena edo eskuduntza.** **V. Epaiketako posizioak eta alderdiak.** 1. Garrantzia eta desberdinketa. 2. Alderdien gaitasuna. 3. Legitimazioa. 4. Postulazioa. 5. Administrazioa prozesu zibilean. 6. Ministerio Fiskala prozesu zibilean. **VI. Prozesuaren objektua: uzia.** 1. Kontzeptua, elementuak eta motak. 2. Uzi metaketa. **VII. Adierazpeneko prozesu zibil arrunt bereziki arruntaren faseak.** 1. Zero fasea: aurreko jarduerak. 2. Lehenengo fasea edo dokumentua: demanda. 3. Bigarren fasea edo dokumentua: demandaren erantzuna. 4. Hirugarren fasea: judizio aurreko entzunaldia. 5. Frogaren ingurukoak. 6. Laugarren fasea: judizioaren egintza. 7. Adierazpeneko prozesuaren bukaera: erak eta beren ondorioak. 7.1. Ohiko era: sententzia, bere motak eta gauza epaituaren ondorea. 7.2. Epaiketa bukatzeko ez-ohiko erak eta beraien arrazoi prozesal eta materialak. **VIII. Hitzezko epaiketa.** **IX. Helegiteak.** 1. Kontzeptua eta Motak. 2. Berraztertzea. 3. Kexa. 4. Apelazioa. 5. Kasazioa. 6. Urrapen prozesalagatik helegitea. 7. Legearen intereserako helegitea. **X. Babes betearazle zibila.** **XI. Kautelazko babes zibila.**

I. Lerro hauen helburua eta ikasgaiak sakondu aurretik jakin beharrekoak


1. Sarrera

Lan honen helburua da zuzenbideko ikasle batek zuzenbide jurisdikzional zibila ikasgaia osatzen duten gaietako edozein irakurri ahal izateko behar dituen gutxiengoak izatea. Horretarako, helburu pedagogiko hutsarekin, beranduago, ikasgaietan zehar, sakonduko diren elementuak era bakunean azalduko dira zero ikasgai honetan. Beste hitz batzuetan, lan honen izenburuak dioen legez, zuzenbide jurisdikzional zibilean zehar bidaia azkarraren proposatzen dugu, horretarako, askotan, beranduago zehaztuko eta matizatuiko diren elementuak aurkeztuz.

Zuzenbide jurisdikzional zibila zuzenbide jurisdikzionalaren zatietako bat da. Ikasleak aurretik zuzenbide jurisdikzionalaren sarrera landu du, eta ondoren, zigor zuzenbide jurisdikzionala ikasiko du. Zero ikasgai honetan bieci egingen zaie erreferentzia, labur-labur bada ere. Has gaitezen.

2. Zuzenbide materiala eta zuzenbide formala

Zuzenbidea osatzen duten arlo guztiak, bi talde nagusitan bana ditzakegu: zuzenbide materiala (edo substantiboa) eta zuzenbide adjetiboa (edo formala). Printzipioz, gure hiru ikasgaiak ez diren guztiek zuzenbide materiala osatzen dute. Horietan, gizakiok zuzen-





bidearen arlo ezberdinetan ditugun eskubide eta betebeharren multzoa aztertzen dira. Horrela, adibidez, lan zuzenbidean, langileak dituen eskubide eta betebeharrak, edo zuzenbide zibilean, norbanakoek gure bizitza eta jarduera pribatuan ditugunak lantzen dira. Baina arlo horietako edozeinetan gatazka juridikoren bat ematen bada, printzipioz, hori konpontzera bide juridikzionalera joango gara. Hor kokatzen da gure ikasgaia: Zuzenbide materialaren edozein arlotan gatazkaren bat emanaz gero, zuzenbide formalera joko dugu bere konponketarako.

3. Gatazka juridikoa orokorrean eta gatazka pribatua bereziki

Beraz, aurrekoarekin estuki lotuta, gatazka juridikoa da gure ikasgaiaren izateko arrazoia. Gizakiok gatazkatsuak gara, eta liskarrak ekidin ezinak direnez, gizartean bake soziala eta justizia gailentzeko, berauek konpontzea ezinbestekoa da. Hala ere, ez dugu gatazka juridikoa elementu edo errealitate negatibo bezala bakarrik ulertu behar. Gizarte zibilizatu batean gatazka beti aldaketaren motorra da eta horregatik ondore positiboak ere baditu.

Zuzenbidearen arlo material edo substantiboei so eginez, gatazka juridiko mota aunitz desberdin du genitzake: penalak, administratiboak, ... Zuzenbide juridikzional zibilaren aplikaziopean epaileek gatazka pribatuak ebazten dituzte; arlo zibilean edo merkataritza arloan emandakoak, alegia. Pentsa dezagun, adibidez, testamentu bat dela eta neba-arreben arteko liskarrean edo eta horniketara bat dela eta enpresa biren artekoan.

4. Gatazkak ebazteko beharra eta horretarako bideak: Jurisdikzioa eta ADR

Aipatu bezalaxe, gizakiok gatazkatsuak gara, eta berauek ekidin ezinak direnez, gizartean bake soziala eta justizia gailentzeko, berauek konpontzea ezinbestekoa da. Gizarte zibilizatu batean autotutela edo burubabesa, hau da, indarrean oinarritutako mendekua alde batera utziz, gatazkak ebazteko bi sistema nagusi ageri dira: autokonposizioa eta heterotutela.

Autokonposizioan, gatazka bateko alderdiek intra partes diharduen hirugarren baten laguntzarekin ebazten dute beraien liskarra. Konponketak hitz egitea eta elkar-ulertzea du oinarri. Adiskidetzea eta bitartekaritza dira autokonposizioaren adibide eta Alternative Dispute Resolution (ADR) deritzon mundu mailako mugimenduan kokatu behar ditugu. Konponbide hauek xedagarriak diren gatazkak -hau da, ordena publikoko gaien inguruak ez direnak- ebazteko erabili ohi dira.

Heterotutelaz mintza gara aldiz, gatazka supra partes ari den hirugarren batek konpontzen duenean. Honen adibide da ADR-en parte den arbitrajea. Hala ere, mundu osoan, gatazkak ebazteko bide heterokonpositibo nagusia jurisdikzioa da, hau da, Epai Boterea.

5. Bide juridikzionalaren ardatza: Espainiar Konstituzioaren 24. artikulua

Jurisdikzioa, zentzu zabalean, Epai Boterea da. Era zehatzagoan, baina, hitz hori erabiltzen dugu hiru errealitate identifikatzeko: (1) epaile eta magistratuak, (2) beraiek osatzen dituzten organoak (pertsonekiko epaitegiak edo anitzeko audientzia eta auzitegiak) eta (3) burutzen duten lana, funtzio juridikzionala alegia, hau da, zuzenbide objektibo kasu zehatzean aplikatzea. Guzti horiek aztertzen ditu zuzenbide juridikzionalak.

Zuzenbide juridikzionalak hiru ardatz ditu: jurisdikzioa, akzioa eta prozesua. Ikasgaiari izena ematen dion lehenengoa azalduta, beronen elementurik garrantzitsuen delako, errepara diezaiegun beste bi elementuei.

Zuzenbidezko Estatu Demokratiko eta Sozialean herritarrok ezin dugu justizia gure esku hartu. Beste hitz batzuetan: ezin dugu autotutela erabili gure desberdintasunak kon-





pontzeko. Zigor Kodeak (aurrerantzean, ZK) berariaz tifikatzen du norberaren eskubidearen egikaritze arbitrarioa (ZK-ren 455 art.) eta hertsapen delitua (ZK-ren 172 art.). Horregatik, norbaitek gure eskubide subjektibo bat urratu duela uste dugunean, Estatuak gatazkak ebazteko aurreikusten duen bide nagusira joan behar dugu, jurisdikzioara alegia. Betebehar hau aldiz, hainbat eskubiderekin babestuta dator. Herritarrok epaileen agintea eta bereziki, ahalmen jurisdikzionala aintzatesten dugunean, harekiko berme multzoa gordetzen dugu. Epaile aurrean herritarrok dugun eskubide multzoari akzio eskubidea edo epaibidezko babes eraginkorrerako eskubidea deritzogu. Egun, eskubide hau Espainiar Konstituzioaren (aurrerantzean, EK) 24. artikulua jasotzen du. Artikulu honek Auzitegi Konstituzionalak “eskubide izarra” deritzon oinarritzko eskubidea jasotzen du, eta berariaz debekatu du herritarrak epaile aurrean babesgabezia geratzea.

6. Epaileek eskaintzen dituzten hiru babes motak

Epaibidezko babes eraginkorrerako eskubidearen egikaritzan epaileek herritarroi, osagarriak diren, hiru motatako babes edo tutela eskaintzen digute: tutela deklaratihoa (adierazpenezko tutela), tutela exekutiboa eta kautelazko tutela.

Tutela deklaratihoa epaileak zuzenbide objektiboa (araua, alegia) kasu zehatz batean aplikatzean datza, gatazka bat konpontzeko, eskubide subjektiboak argitzen eta legea aplikatzen duen bitartean. Epailea jarduera hori burutzen ari den bitartean, beti ari da adierazpenezko tutela eskaintzen, lehen auzialdian, bigarren edo hirugarrenean. Azken bi hauetan, aurreko epaitegiaren erabakiarekin ados egon gabe, goragoko batetara joaten gara, kasu zehatzean zuzenbide objektiboa era zuzenean aplikatzeko eskatuz.

Hala ere, askotan adierazpenezko tutelak ez du herritarra asetzen, posible baita kondenazko epai batek behartuak ez betetzea epaileak agindutako egite (ez egite) edo ematea (ez ematea). Orduan ere, sententzia horrek mesedetuak ezin du justizia bere esku hartu. Autotutela debekatuta dago, ZK-an tipifikatuta dagoelarik (ZK-ren 455 eta 172 art.). Horregatik, orduan ere, epailei eskatu behar zaie, kondenatutako herritarrak borondatez egin ez duena, hark indarrez betearazi dezala. Babes betearazlea eskatzen zaie. Epaileek indarra erabili dezakete legeak betearazpen titulu moduan aurreikusten dituenak betearazteko. Indar hau Estatuaren indar legitimoa da, justizia egiten dela eta bake soziala bermatzeko aurreikusia.

Adierazpen eta betearazpen babesak denbora bat galdatzen dute. posible da denbora horretan demandatuak edo exekutatuak bi babes haien azken emaitza arriskuan jartzen duen portaeraren bat izatea. Hori ekiditzeko kautelazko babesa existitzen da. Herritarrok posible dugu epaileak tutela deklaratihoa edo exekutiboa erabakitzen duen bitartean, behin-behinean eta era azkarrean, haien azken emaitza babesteko kautelazko neurri bat (edo gehiago) eskatzea.

Argi geratzen da, horrenbestez, hiru tutela motak osagarriak direla. Denborari dagokionez, normalean adierazpenezkoa exekutiboaren aurretik ematen da (batzuetan exekutiboa hura gabe ere existitu badaiteke ere!) eta kautelazkoa beste biekkin paraleloki.

7. Hiru babes motak eskatzeko demandak, bere uziak eta jarraitu beharreko prozesuak

Hiru babes horietako bakoitza eskatzeko, arlo zibilean, herritarra epaitegietara joan behar da, bere epaibidezko babes eraginkorrerako eskubidea egikaritzuz. Kasuan kasuko demanda tarteratu beharko du (deklaratihoa, exekutiboa edo kautelazkoa). Demanda da prozesuari hasiera ematen dion lehen dokumentua edo eta haren lehen fasea. Demandaren edukirik garrantzitsuena uzia da, beraren bitartez epaileari eskatzen zaiona alegia. Hiru epai-



babes mota bakoitzari uzi mota bat dagokio, horrela uzi deklaratioak, exekutiboak eta kautelazkoak desberdintzen ditugularik.

Hiru tutela motak, eta ondorengo demanda eta uzi motak desberdinduta, beraietako bakoitza garatzeko prozesua desberdindu behar dugu. Prozesua da justizia egiteko, gatazka juridikoa ebazteko alegia, epaileek eta alderdiek jarraitu beharreko elkarren segidako egin-tzen multzoa. Adierazpenezko tutela, mota horretako uziaz eskatuta, adierazpenezko prozesuan erabakitzen da. Eskema bera errepikatzen da beste bi tutela motetan.

Arlo zibilean, orokorrean, babesten diren interes pribatuekin bat, alderdiak dira hiru mota-tako prozesuen jabeak (xedapen printzipioa), beraiek erabakitzen baitute epailetara joan ala ez (aukera edo oportunitate printzipioa).

II. Prozesu zibila arautzen duen legea: Prozedura Zibileko Legea (PZL)

Gure ikasgaien arlo zibilean (eta merkataritza arloan) ematen diren gatazkek ebazteko epaileek eskaintzen dituzten hiru tutelak aztertuko ditugu. Hiru horiek Prozedura Zibileko Legean, 1/2000, urtarrilak 6ko legean arautzen dira (aurrerantzean, PZL). Zalantza gabe, lege hau bigarren milurteko legerik garrantzitsuena izatera deitua da (gaur egun arte, behintzat). Aurreko Prozedura Zibileko Legea 1881. urtekoa zen .

Indarrean dagoen PZL-a lau liburuk osatzen dute: (1) kontu orokorrak, (2) adierazpen prozesu arruntak, (3) exekuzioa eta kautela eta (4) adierazpen prozesu bereziak.

III. Jarraitu beharreko prozesua: adierazpenezko babesa eskaintzeko erabiltzen diren prozesuak: arruntak (arrunta bereziki arrunta eta hitzezkoa) eta bereziak

Esan bezalaxe, herritar batek, bere epaibidezko babes eraginkorrerako eskubidea egikaritzuz, epaile batengana joan nahi duenean adierazpenezko babesa eskatzera, adierazpenezko demanda bat tarteratu behar du, mota bereko uzia tarteratuz. Epaileak babes hori ematen dion ala ez erabakitzeke (beste hitz batzuetan, uzia onartzen duen edo ez erabakitzeke), eta alderdiek horren ingurukoa argudiatzeko (demandantearen abokatuak aldeko argudioak azalduz eta demandatuarenak kontrakoak) jarraitu beharreko elkarren segidako egintza prozesalen multzoari prozesua deritzo. Tutela deklaratioa erabakitzeke prozesu deklaratioa jarraitu behar da. Kontua da baina Espainian ez dagoela adierazpenezko prozesu bakar bat. Asko daude eta kasu konkretuan, aurkezten den gatazka juridikoaren arabera, prozesu bat edo beste jarraitu beharko da.

Gure ordenamendu juridikoan bi adierazpenezko prozesu nagusi desberdindu behar ditugu: arruntak eta bereziak.

Adierazpenezko prozesu bereziak dira PZL-ren IV liburuan aurreikusten diren gai konkretuen inguruko gatazka juridikoak garatzeko erabiltzen direnak. Prozesu berezi hauen ezaugarri nagusietako bat, demandarekin batera aurkeztu beharreko dokumentu zehatzak dira. Lau taldetan sailka ditzakegu:

a) Gaitasun, filiazioa, ezkontza eta adingutxikoen inguruko prozesuak: norbait ezgaitzeko edo birgaitzeko; gizabanako bat beste norbaiten semea, aita edo eta ama, dela edo ez dela adierazteko; ezkontza deusezteko edo apurtzeko (dibortzioa eta banaketa), eta adingutxikoen inguruko eskaera zibilak (elikagaiak, tutoretzak...) egiteko erabili beharrekoak. Hauetan Ministerio Fiskala aritzen da, interes publikoa pribatuarekin nahasten delako. Prozesu hauek xedaezinak dira, interes publikoa gailentzen baita.





b) Ondareen banaketa judizialaren ingurukoak: Zenbait pertsonen artean ondasun batzuk banatu behar direnean eta berauek horretarako ados jartzen ez direnean erabiltzen dena. Epailea da ondasunok banatzen dituen. Bi kasu nagusi barneratzen ditu: (1) oinordetza kasuak eta (2) ezkontzaren eraentza-ekonomikoaren likidazioa. Prozesu hauek xedagariak dira.

c) Ganbio-epaiketa (PZL-ren 812 art.): Merkataritza gaietan, txeke, ganbio-letra edo ordainduko bat bere alde duenak, berauen ordainketa bermatzeko jarraitu beharreko epaiketa.

d) Epaiketa monitorioa (PZL-ren 819 art.): Diruzko zor likido, epemugaeguneratu eta galdagarria justifikatuta duen (faktura edo bestelako dokumentua) pertsonak, honen ordainketa azkarra eskatzeko jarraitu beharreko prozesua. Hau ere xedagarria da.

Argi ikus daiteke aipatutako prozesu bereziek ez dituztela jasotzen bizitza juridikoan eman daitezkeen gatazka guztiak. Bestelako gatazka juridikoak prozesu arrunten bitartez garatu behar dira. Kontua da -beste behin- prozesu arrunta ere ez dela bakarria. Bi dira: arrunta bereziki arrunta eta hitzezkoa.

Gauzak horrela nola jakin zein prozesu jarraitu behar den kasu zehatzean, bereziren bat edo bi arruntetariko bat? Bi horien arteko desberdinketa egiteko gaiaren edo materiaren irizpidea jarraituko dugu. IV liburuko materia baten inguruko gatazka juridiko bat ebazteko kasuan kasuko epaiketa berezia jarraitu beharko da. Bestelako kasuetan, adierazpenezko epaiketa arrunt bat jarraitu beharko dugu. Baina nola aukeratu kasu zehatzean bi horietako zein jarraitu? Horretarako bi irizpide aplikatuko ditugu, elkarren segidan: materia eta zenbatekoa. PZL-ren 249.1 eta 250.1 artikuluek, hurrenez-hurren, gai zerrenda batzuk biltzen dituzte, lehenengoak epaiketa arrunta bereziki arruntaren bidez izapidetu beharrekoak eta bigarrenak, aldiz, hitzezko epaiketaren bidez izapidetu beharrekoak. Epaitegira aurkeztu beharreko kontu edo gatazka horien ingurukoa izanda, prozesu mota zehaztuta egongo da. Hala ere, bi zerrenda hauek ez dituzte -berririo- bizitza sozialean eman daitezkeen gatazka juridiko guztiak jasotzen. Hori dela eta, existitzen diren bi epaiketa arrunten artean zein jarraitu behar den erabakitzeke materiaren irizpidea nahikoa ez denean, subsidiarioki, zenbatekoarena erabili behar dugu. Gatazka juridiko guztiak balio bat dutela kontutan hartuta, zenbateko bat izan behar dugu buruan: 6.000 euro. Hortik goragoko gatazka juridikoak epaiketa arrunt bereziki arruntaren bitartez garatuko dira (PZK-ren 249.2 art.), beheragoak, hitzezko epaiketaren bitartez (PZK-ren 250.2 art.). Gatazkaren balioa kalkulazina denean berriz, arrunta bereziki arrunta jarraituko dugu.

Bukatzeko, berariaz azpimarratu behar dugu kasuan kasu, gatazka juridiko zehatzean jarraitu beharreko adierazpenezko prozesua ordena publikoko materia dela. Beste hitz batzuetan: ez bada jarraitu beharreko prozesua jarraitzen epaiketa deuseza izanen da.

IV. Zein epaitetik ezagutuko du kasua? Jurisdikzioa eta eskumena edo eskuduntza

Jurisdikzioan gatazkak ebazteko behar dugun lehenengo elementua epaile bat da, gatazka juridikoa supra partes, agintari moduan, ebazten duena. Zein epaitetara joango gara gure gatazkaren ebazpena eskatzera? Honen inguruan bi kontzeptu desberdin behar ditugu: jurisdikzioa eta eskumena edo eskuduntza.

Jurisdikzioaz mintza garenean, puntu honetan, bi gauzari egin nahi diogu erreferentzia: (1) gatazka Espainiako epaileek edo beste Estatu batekoek ezagutu behar duten; izan ere, ezin dugu ahaztu egun gure harreman juridikoak globalizatuak direla. Eta, bestetik, (2) alderdiek gatazkak epaibidea ez den beste edozein bidera -ADR tresna batera alegia - eramatea erabaki duten (edo ez).





Gauzak horrela, Espainiako epaitegiek ezagutu ahal izateko, lehendabizi beharrezkoa da Espainiak jurisdikzioa izatea eta alderdiek Espainiako jurisdikzioari uko egin ez izana. Demagun biak ematen direla. Zein epaitegiek ezagutuko du gure demandaz? Hemen agertzen da bigarren kontzeptua: eskuduntza edo eskumena. Honekin, Espainian diren epaitegi guztietatik kasu zehatzaz norik ezagutu behar duen adierazi nahi da.

Epai organo konkretuarekin emateko hainbat pausu jarraitu behar ditugu. Lehenengo eta behin, eskumen orokor edo generikoaz mintza behar gara. Honekin bat, Espainian daude epai organo guztiak lau familia edo talde nagusitan sailkatzen dira, aplikatzen duten zuzenbide material edo substantiboaren arabera. Ordena jurisdikzionaletaz ari gara: zibila, penala, administratiboa eta laborala. Gure ikasketaren objektu izango den ordena zibilak zuzenbide zibilaz eta merkataritza zuzenbideaz, hau da, pertsona fisiko eta juridikoen edo beraien arteko harreman juridiko-pribatuez ezagutzen du. Horrez gain, vis atractiva delakoa du: legeak berariaz beste ordena jurisdikzional bati egozten ez dion guztia ordena zibilaren eskumenekoa da. Arau orokor moduan, ordena jurisdikzional bakoitzak bereak diren gai edo kontuetaz bakarrik ezagutu dezake. Zentzu honetan, eskumen orokorra luzaezina edo xedaezina dela esaten da.

Demagun epaitegietara eraman nahi dugun gatazka zuzenbide pribatukoa dela (bi norbanakoen arteko kontratu baten ingurukoa, esaterako). Beraz, ordena zibileko epaitegiek ezagutu beharko dute. Kontua da baina, ordena zibilaren barruan ehundaka epaitegi daukela, bost motatakoak:

a) Bake-epaitegiak: lehen auzialdiko epaitegi bat ez duten udalerrri guztietan bat. Bere titularrak ez du zertan zuzenbidean teknikoa izan behar.

b) Lehen auzialdiko epaitegiak: barruti judizialetan, biztanleriaren arabera bat edo gehiago. Epaitegi hauek espezializatuta ager daitezke: familia epaitegiak, exekuzio epaitegiak, merkataritza epaitegiak eta emakumearen aurkako indarkeriaz ezagutzeko epaitegiak.

c) Auzientzia probintzialak: probintzia bakoitzean bat, helegiteez ezagutzeko.

d) Justizia Auzitegi Nagusia: Autonomia Erkidego bakoitzean bat. Gurea Bilbon dago.

e) Auzitegi Gorena; bat bakarra, Madrilen Estatu osorako.

Bost motatako epai-organoren artean gatazka konkretuaz zeinek ezagutu behar duen jakiteko eskuduntza egozteko irizpideak aplikatu behar dira. Hiru dira eta hirurak batera aplikatu behar dira.

Irizpide objektiboa aplikatuz, gatazkaren materiaren edo zenbatekoaren arabera, epaitegi batera edo bestera joan beharko gara. Adibidez, gatazka dibortzio bat bada, familia-epaitegira joan beharko gara edo 90 euro baino gutxiagoko balioa badu, bake-epaitegira.

Irizpide funtzionalari jarraituz, epaitegiari eskatzen zaion funtzioaren arabera (lehen auzialdian edo bigarrenean (edo hirugarrenean) ezagutzea; betearazpena; kautela,...) batera edo bestera joango gara.

Lurralde irizpidea aplikatuz, lurralde bateko epaitegi batera edo bestera joango gara. Foru deritzoguzko irizpide objektiboa eta funtzionala errespetatuz lurralde eskuduntza zehazten duen arauari. Bi motatako foru desberdinduak ditugu: hitzartutakoak eta legalak. Lehenengoen bitartez gatazka juridikoaren alderdiek adosten dute zein lurraldeko epaitegira -ez epaitegi konkretua - joan; bigarrenean, aldiz, legeak agindutako lurraldera joan beharko dira. Foru konbentzionalik egon ezean, beti aplikatuko dira foru legalak. Gainera, askotan azken hauek aplikatu beharko dira legeak foru konbentzionala -alderdiek epaiketarako lurraldea adostea- debekatzen duelako.



V. Epaietako posizioak eta alderdiak

1. Garrantzia eta desberdinketa

Epaitegia zehaztuta, prozesu edo epaiketa bat izateko, horren alderdiak identifikatu behar ditugu. Epaiketa bat egoteko derrigorrezkoa da bi posizio (eta bakarrik bi) egotea: aktiboa eta pasiboa. Posizio aktiboa epailearengana uzia tarteratuz doan herritarra/ek osatzen du/te, aldiz, pasiboa, haren eskaeraren helburu dena/direnak. Lehenengoaren eskaeraren aurrean bigarrenak ezezkua ematen du. Beraz, interes kontrajarria duten aldeak dira posizioak: bati mesede egiten dionak bestea kaltetzen du eta alderantziz. Posizioen dualtasunaren printzipioaz mintzo gara, epaiketa existitzeko derrigorrezkoa dena.

Posizio bakoitzean alderdi bat edo gehiago egon daiteke. Alderdia da posizio bakoitzean interes propioa duen norbanakoa (pertsona fisiko, zein juridikoa), beraietako bakoitza EK-ren 24. artikulua izanik. Posizio aktiboan kokatzen dena demandantea da, pasiboan aldiz, demandatua. Nahiz eta normalean posizio bakoitzean alderdi bakar bat egon, posible da bietako batean edo bietan hainbat alderdi agertzea. Posizioak, aldiz, beti eta bakarrik bi izango dira. Horregatik da garrantzitsua posizioa eta alderdia desberdintzea.

Posizio batean edo bietan alderdi bat baino gehiago egotean datzan fenomeno prozesalari litiskonsortzio edo auzikidetzaz deritzen. Auzikidetzaz aktiboaz mintza gara posizio aktiboan demandante bat baino gehiago dihardutenean; auzibidetzaz pasiboa, demandatuak bat baino gehiago direnean, eta bi posizioetan alderdi aniztasuna bada, litiskonsortzio mistoaz mintzatuko gara.

Epaietako alderdi ez den oro (epailea bera, lekukoa, aditua...) hirugarren prozesala da.

2. Alderdien gaitasuna

Alderdi bakoitza desberdintzea garrantzitsua da, EK-ren 24. artikulua indibiduala izanik, bakoitzak bere abokatua eta estrategia judiziala izan ditzakelako. Alderdien inguruan, zuzenbide zibilean egiten den legez, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna desberdinduz, prozesalean alderdi izateko gaitasuna eta gaitasun prozesala desberdindu behar ditugu. Pertsona fisiko zein juridiko orok -baita erdibidean dauden batzuek ere-, dugu gure interes eta eskubide subjektiboak defenditzeko epaileetara joateko eskubidea. Beste hitz batzuetan: guztiok dugu EK-ren 24. artikulua aintzatesten duen epaibidezko babes eraginkorrerako eskubidea. Honi alderdi izateko gaitasuna deitzen diogu. Hala ere, askotan ezin dugu guk geuk eskubide hori gauzatu. Eskubide hori gauzatzeko ahalmenari gaitasun prozesala deritzen, eta pertsona fisikoek, 18 urte baino gehiago eta ez-gaituta ez badaude izango dute, pertsona juridikoek aldiz, legearekin bat eratuta badaude.

3. Legitimazioa

Gaitasun prozesala duen oro joan daiteke edozein epailetara, demandante edo demandatu moduan, baina epaiketa konkretura joan ahal izateko zerbait gehiago behar da: kasu (edo epaiketa) zehatzean interesa.

Bi motatako legitimazio desberdinduko ditugu: aktiboa, prozesu zehatzean demandante izateko aukera alegia, eta pasiboa, demandatua izatekoa.

4. Postulazioa

Gaitasuna eta legitimazioa dugun herritarrak ezin gara baina, zuzenean gu bakarrik epailetara joan epaibidezko babes eraginkorrerako eskubidea egikaritzera. Legeak postu-





lazio betebeharra galdatzen digu: zuzenbidean adituak diren adituekin joan behar gara epai-leen aurrera.

Espainian postulazioa bi lanbide juridikok eskaintzen dute: abokatu eta prokuradoreak. Biak dira zuzenbidean graduatuak, kasuan kasuko abokatutza edo prokuradoretza masterdunak, eta Estatuko azterketa gaitutakoak. Bien lana desberdintzea komenigarria da.

Abokatuek, oro har, herritarroi aholkularitza juridikoa eskaintzen digute. Ahokularitza horren egikaritzan, herritarren eskubide subjektibo bat defenditzera epaitegietara joatea gomendatzen badute -ADR bidea baztertuta, beraz-, epaiketa horretarako estrategia prestatzeaz gain, epaiketan herritarra defendituko dute.

Prokuradoreak aldiz, epaiketan herritarra ordezkatzen du. Horrela herritarrek ez dauka zergatik epaiketara joan behar. Salbuespena bakarra da: alderdiaren itaunketaren froga eskatzen bada derrigorrezkoa du epaile aurrean agertzea. Horrenbestez, prokuradorearen aurrean egiten edo esaten den guztia herritarren esaten zaiolaren fikzioa egiten da. Gainera, epaitegiak herritarren esan beharreko guztiak (komunikazioak), hari esango dizkio.

Azkenaldian, krisialdi ekonomikoaren loraldian bereziki, baina aurretik ere, prokuradorezaren existentzia (eta beharra) oso eztabaidatua da: abokatu epaiketan presente egonik eta teknologia berriak erabiliz, epaitegia harekin era errezean harremanetan egon ahal izanik, prokuradoreen lanaren beharrezkotasuna zalantzatan jartzen da. Legegileak baina, prokuradoretza indartzearen alde, bi funtzio berri eman dizkio: komunikazio egintzak egitea eta epaitegien arteko laguntza eta lankidetzatza.

5. Administrazioa prozesu zibilean

Administrazioaren desadministrazioa deritzon fenomenoaren ildotik, administrazioa prozesu zibileko alderdi izan daiteke, bai demandante, bai demandatu. Kontua da baina, teoriarik berdinaren arteko epaiketa den prozesu zibilean Administrazioa aritzen denean hainbat pribilegio dituela: prozesua eteteko eska dezake kasua aztertzeko; Estatuko Abokatuak defendatzen eta ordezkatzen du; bere ondasunak ezin dira enbargatu...

6. Ministerio Fiskala prozesu zibilean

Ministerio Fiskala espainiar Konstituzioak aurreikusten du, bere eginkizunak finantzatu: “Fiskaltzaren eginkizuna da, bestelako organoek dituzten zereginen kalterik egin gabe, justiziaren ekintza bultzatzea, legezkoasuna, herritarren eskubideak eta legeak babestutako interes publikoa defendatzeko, ofizioz edo interesdunek hala eskatuta; haren eginkizuna da, orobat, auzitegien independentzia zaintzea eta auzitegietan gizarte-interesa ase dadin sustatzea” (124 art.).

Kontua horrela, normalean fiskaltza ez da arituko prozesu zibilean, penalean baino, azken honetan interes publikoa eztabaidatzen delako. Hala ere, salbuespen moduan, lan-tzean behin prozesu zibilean ere aritzen da, honetan interes publikoa dagoenean (gaitasun kontuak, umeak...). Gainera, prozesu zibilean adingutxikoak eta ezgaituak ordezka ditzake (PZL-ren 8.2 art.) eta zenbaitetan funtzio txostengilea dauka (jurisdikzioa eta eskumena...).



VI. Prozesuaren objektua: uzia

1. Kontzeptua, elementuak eta motak

Arlo zibilean, interes pribatuen defentsa epaile aurrera eramateko, herritarrak demanda tarteratzen du, dagokion adierazpenezko prozesuan. Prozesu horren objektua edo muina, gainerako prozesuetatik desberdintzen duen elementua, uzia da. Uzia epaileari beste pertsona baten aurrean eta bizitzako ondasun baten inguruan egiten zaion eskari oinarritua da.

Uzia demandanteak tarteratzen du, demandatuaren aurrean edo kontra. Demandanteak epaileari eskari bat egiten dio egitateetan oinarrituz. Uziaren oinarria ez da zuzenbidea, egitateak baino, epaileak zuzenbidea jakin badakielako (*iura novit curia*). Epaileak egitate horiei zuzenbidea aplikatuz ebatziko du uzia, onartuz edo gaitzetsiz. Horrela bada, uzia bi elementuk osatzen dute: eskaera bera (*petitio*) eta eskatzeko arrazoia (*causa petendi*, edo egitateak).

Epaile babes haina uzi desberdindu behar ditugu: adierazpenezko demandan, adierazpenezko uzi bat tarteratzen da; exekuzio demandan exekuziozko uzi bat, eta demanda kautelarran, kautelazko uzi bat. Beroietako bakoitza onartzeko edo gaitzesteko kasuan kasuko prozesua jarraituko da (adierazpenezkoa, exekuziozkoa eta kautelarra).

Gainera, adierazpenezko uziaren eremuan, beste hiru mota desberdindu behar ditugu: adierazpen hutseko uzia, uzi eratzailea eta kondenazko uzia.

Adierazpen hutseko uzi baten aurrean gaude, herritarrak epaileari baieztapen huts bat eskatzen dionean (adibidez, aitatasun bat baieztatzeke). Kasu honetan, epailearen baieztapen hutsak herritarra hasetze du, inolako exekuziorik behar gabe.

Uzi eratzaileen bitartez, epaileari hiru gauza eska dakizkioke: (1) egoera juridiko edo harreman juridiko bat sortzeko (adibidez, aitatasun baieztapena bera), (2) aldatzeko (adibidez, dibortzio eskaera) eta (3) desagertarazteko (adibidez, sozietate baten likidazioa). Kasu honetan ere, epaileak berak sortzen, aldatzen edo deuseztatzen du harreman edo egoera juridikoa, ondorengo inolako exekuziorik beharrezko izan gabe.

Azkenik, kondenazko uzi bat tarteratzean, herritarrak epaileari eskatzen dio norbaiti (demandatua) zerbait egiteko (edo ez) edo emateko (edo ez) agintzeko. Uzi hauek dira, sententzian onartuz gero, exekuta daitezkeen bakarrak: demandatu kondenatuak agindutakoa bakez edo borondatez betetzen ez badu, indarrez betearaziko dio epaileak.

2. Uzi metaketa

Uzi metaketa deritzogu prozedura berean uzi bat baino gehiago eta hauetako bakoitzari dagokion prozesua izapidetzean datzan fenomeno prozesalari. Berau ondo ulertzeko ondorengoa azpimarratzea ezinbestekoa da: uzi bakoitza ebatzeko prozesu bat jarraitu behar da, eta prozesu bakoitzak bere prozedura dauka, nahiz eta posiblea izan uzi batek baino gehiagok (eta horrenbeste prozesuk) prozedura bera elkarbanatzea.

Prozesua eta prozedura zuzenbidearen bizitza praktikoan sinonimo moduan erabiltzen dira, nahiz eta gauza desberdinak izan. Beraiek ondo desberdintzea garrantzitsua da uzi metaketa ulertu ahal izateko.

Prozesua uzi bat onartzen duen edo ez erabakitzeke epaileak eta alderdiek (demandanteak epailea onartzera konbentzitzeko eta demandatuak kontrakoa lortzeko) egin edo jarraitu beharreko elkarren segidako egintza prozesalen multzoa da. Adibidez, epaiketa arrunta bereziki arruntean prozesua demandak, demandaren erantzunak, judizio aurreko entzunaldiak, epaketaren egintzak eta sententziak osatzen dute, bata bestearen atzetik egitarituz. Prozesuak egintzon sustantzia edo materiari so egiten dio; zer eta zertarako egiten den alegia (demanda uzia tarteratzeko eta epaileari eskatzeko; demandaren erantzunak





uziari aurre egiteko erresistentzia aurkezten du;...). Prozedurak, aldiz, egintzon itxura edo kanpoko formari erreparatzen dio, aipatutako elkarren segidako egintzak nola egiten diren alegia (non, zelan –ahoz, idatziz...-, noren aurrean, noiz...).

Gauzak horrela, uzi batzuek elkarren artean harremana badute (kontratu baten ez betetzeagatik, diruaren itzulpena eta kalteordainak eskatzen dira) ekonomia prozesala lortzeko eta kontraesankorrak diren sententziak ekiditeko posible da guztiak prozedura bakarrean izapidetzea. Formalki prozedura bakarraren aurrean egongo gara, baina materialki uzi haina prozesu egongo dira.

VII. Adierazpeneko prozesu zibil arrunt bereziki arruntaren faseak

1. Zero fasea: aurreko jarduerak

Demanda da prozesuari hasiera ematen dion egintza, baina aurretik beste egintza batzuk eman daitezke, era formalago edo informalagoan.

Arlo informalean, abokatuak, kasu bat heltzen zaionean, lehenengo gatazka hori epaitegietara edo ADR bide batera eramatea pentsatu behar du. Aholku bila berarengana joan den liskarraren parte den herritarrarekin hitz egin beharko du horretarako eta honek esandakoak aintzat hartuz kasun kasuko jurisprudentzia aztertu. Bi elementu hauek kontutan hartuta, epaiketara joatea pentsatu badu, hartan jarraitu beharreko estrategia pentsatu beharko du: demandaren uzia oinarritzeko beharrezko egitate egokiak aurkeztea, frogak prestatzea,...

Epaiketara joatea erabakita, bi jarduera formalago eman daitezke, biak ere demandantearentzat guztiz borondatezkoak: aurretiazko adiskidetzea eta aurretiazko diligentziak.

Posible du abokatuak epaiketara joan aurretik (demanda tarteratu baino lehen) adiskidetze bat ahalegintzea. Aurretiazko adiskidetzea deituko diogu, oraindik epaiketa hasi gabe dagoelako. Adiskidetze hau edozein hirugarrenen aurrean ahalegindu edo burutu badaiteke ere, guk adiskidetzea epaitegi batean egiten den kasua aztertuko dugu. Eskuduna den Bake epaitegira edo Lehen Auzialdiko eta Merkataritza epaitegira joan gaitezke horretarako. Bereziki azpimarratu behar dugu bake epailea edo beste bi epaitegietako justizia administratiboa letratuak adiskidetze lanean dihardutenean ez dabiltzala funtzio jurisdikzionala egikaritzen, borondatezko jurisdikzioa baino. Horregatik, Borondatezko Jurisdikzioaren legea aplikatuko da (15/2015, uztailak 2koa).

Gainera alderdiek (normalean demandanteak) badute epaiketa materialki (mamiari edo funtsari buruz) eta prozesalki (kasuan kasuko prozesua ondo eratzeko) prestatzeko epaileari jarduera zehatz batzuk eskatzeko aukera. Jarduera hauei aurretiazko diligentzia deitzen zaie eta numerus clausus dira. Esaterako, epaileari norbaiti (demandanteak demandatu nahi duen norbanakoari) bere gaitasun, ordezkaritza eta legitimazioaren inguruan galdetzeko edo dokumentuak erakusteko eska dakioko.

2. Lehenengo fasea edo dokumentua: demanda

Demanda da prozesuari hasiera ematen dion alderdiaren egintza. Interes pribatuak ebazten dituen prozesu zibilera heltzeko atea demanda da, bertan epaileari justizia eskatuz, EK-ren 24. artikulua egikaritzuz. Tarteratzen duenak bere burua (demandantea) eta demandatuarena (bere eskaeraren helburua) identifikatuko ditu. Demandaren eduki garrantzitsuenak, aldiz, uzia da.

Demandarekin batera demandanteak dokumentu prozesalak (berak martxan jartzen duen prozesua ondo egituratuta dagoela frogatzeko) eta materialak (uzia onartzeko froga moduan aurkezten direnak) aurkeztuko ditu. Azken hauen inguruan zenbait ohar. Doku-





mentutzat hartzen dira ohiko idazkiak eta baita ere teknologia berriak erabiliz egindakoak (whatsApp, pendrive,...). Dokumentua prozesu zibileko “froga erregintzat” jotzen da, kontrako alderdiak ez badu inpugnatzen, jasotzen dituen pertsona, data eta egitateen inguruan epailea lotzen baitu. Gainera beroien aurkezpena preklusiko printzipioaren menpe dago: demandanteak aurkeztu nahi dituen dokumentu material guztiak orain demandarekin batera aurkeztu behar ditu. Demandatuaren babesgabezia ekiditzeko (herritar ororentzat debekatua, EK-ren 24 art.-an) ezingo ditu beranduago aurkeztu. Salbuespen moduan, demandantek dokumentu berriak edo ezagutze berrikoak baditu, epailearen baimenarekin prozesuan zehar aurkeztu ahalko ditu.

Demanda epaiketarako onartzearekin batera sortzen diren ondore prozesal multzoari litispendentzia edo auzibitarte deritzo. Berau hiru eratarata definitu dezakegu: (1) demanda tarteratu aurretik eta ondoren ematen diren egoeren arteko apertura da, (2) baita zuzenbide pribatutik publikorako iraganbidea ere, eta (3) jada epaileak kasu/gatazka juridiko batetaz ezagutzen ari direla esan nahi du. Epaileak kasu horrekin bukaera arte (uzia onartuz edo ez) jarraitzeko betebeharra du.

Ezin daitezke uzi berdinaren inguruan, aldi berean, bi litispendentzia eman. Beste hitz batzuetan: eskaera bera ezin dute aldi berean bi epaitegik ezagutu.

3. Bigarren fasea edo dokumentua: demandaren erantzuna

Demandantea bere EK-ren 24 art. egikaritzuz joan bada epaitegietara, eskubide bera du demandatuak. Eta hori egikaritzuz, demandatuak epaibidean haren eskariaren aurrean bere burua defendatzeko eskubide bera du. Horrela egin ahal izango du (ez da betebeharra, zama baino) demandari erantzuteko epatzen zaionean. Praktikan demandatuak honako aukerak ditu:


1) Hasieratik ezer ez egitea. Gogoratu, demandari erantzutea zama dela, ez betebeharra. Ondorioz, epaileak demandatua errebelde edo auzi-ihesean deklaratu du. Epaileak ez du aztertuko demandatuak zergatik ez duen erantzuten. Automatikoki errebelde aitortuko du. Ondorioz, errebeldeak ezingo ditu momentuko egintza prozesalak burutu. Errebeldiak baina ez du prozesua eteten. Are gehiago, bere adierazpenarekin demandatua demandanteak esandako eta eskatutako ororen kontra dagoelaren fikzio juridikoa egiten da. Ondorioz, demandanteak epaileak uzia onartzea nahi badu, kasuan kasuko egitateak aurkeztu eta frogatu beharko ditu. Hala ere, ezin uka daiteke, egoera honetan, epaiketa demandantearentzat errazagoa izango dela, ez baitu izango kontrako abokatu bat denbora guztian zirikatzen (erresistentzia garatzen!).

Errebelde deklaratu epaiketara beranduago ager daiteke, baina preklusio printzipioaren aplikaziopean ezingo ditu aurreko faseetan egin beharreko egintza prozesalak egin.

Zer getatzen da norbait bere borondatearen kontra errebelde deklaratu bada? Iku-siko dugunez, baditu bere burua defendatzeko bideak. Garrantzitsuena, demandatu errebeldiari audientzia delakoa da.

2) Epailearen aurrera agertzea baina ez erantzutea. Guztiz zilegia den aukera honekin demandatuak bere errebeldia ekiditen du. Prozesuan presente egongo da eta guztiaren jakinaren gainean. Logikoki, bere aukera preklusio printzipioaren menpe dago oraingoan ere: egin ez dituenak ezingo ditu beranduago egin.

3) Deklinatoria tarteratzea edo aurkaratzea. Deklinatoria ez da demandari erantzutea, demandanteak demanda tarteratzeko aukeratu duen epaitegiak jurisdikziorik edo esku-menik ez duela salatzen tresna prozesala baino. Deklinatoria epailearen aurreko pronuntziamentua galdatzen duen arazo prozesala da. Honen aurrean epaileak prozesua eteten du eta berau ebatzi arte (eta bere kasuan, jurisdikzioa edo eskumena duela erabaki arte) ez du harekin jarraituko.





4) Demandatua epaile aurrera agertzea eta demandari erantzutea. Hau da, demandatuak EK-ren bere 24. artikulua egikaritzuz, demandantearen uziaren aurrean bere burua defendatzen du. Horretarako, uziaren kontrako zentzuan eskatuko dio epaileari (ez dezala uzia onartu, alegia). Uzia oinarritzea ezinbestekoa bada, ez da gauza bera gertatzen erresistentziarekin. Demandatuak uziari “ezetz” esatearekin nahiko du; demandateak esandako eta eskatutako guztia frogatu beharko du. Hala ere, demandatuak badu bere erresistentzia argudiatzeko edo oinarritzeko aukera. Horretarako esaten edo egiten dituen alegazioei salbuespenak deritze.

Bi motatako salbuespen prozesal desberdinu behar ditugu: prozesalak eta materialak. Lehenengo bitartez demandatuak demandanteak martxan jarri duen prozesuan akats prozesalak salatzen ditu (postulazio falta, gaitasun falta,...). Hori egiterakoan epaileak prozesal hutsa den edo auzialdian absoluziozkoa den sententzia edo epai bat ematea du xede: epailea ez da sartuko kontuaren mamian (uzia onartuz edo ez), galarazten dion/dizkioten akatsak bitarteko. Bestalde, salbuespen materialen bitartez, demandatuak demandanteak bere uzia oinarritzeko eman dituen egitatei aurre egiten die, horiek indar gabe uzten dituzten egitateak alegatuz. Horrenbestez, kasu honetan demandatuak uzia gaitzesten duen epai bat du helburu.

5) Demandari erantzuteaz gain, uziari aurre eginez (erresistituz, alegia) kasuan kasuko salbuespenak aurkeztuta (edo gabe), demandatuak badu demandaren erantzuna demandantearen kontra duen uzi bat (edo gehiago) tarteratzeko aprobeztatzea. Fenomeno honi errekonbentzioa deritzo eta beti dakar berarekin uzi metaketa.

4. Hirugarren fasea: judizio aurreko entzunaldia

Epaiketa arrunt bereziki arruntaren fase hau Espainiako legelariak Alemaniatik kopiatu zuen, espainiar ordenamendu juridikoan prozesal hutsak diren sententziak ekiditzeko asmo nagusiarekin. Fase honi koherentzia eta osotasuna emateko, bertan lau funtzio burutzen dira:

a) Prozesua ekiditeko funtzioa: Alderdien alegazio idazkiak irakurrita (demanda eta demandaren erantzuna, alegia), epaileak badu momentu honetan alderdiak prozesuari bukaera eman diezaiokeen adiskidetzea lortzen ahalegintzea. Ezin dugu ahaztu prozesu zibilean interes pribatuak ebatzen direnez, eta hauek xedagarriak direnez, posible dela orain -edo beste momentu batean- prozesuari bukaera ematen dion akordio bat lortzea.

b) Prozesua saneatzeko funtzioa: Kasuari bukaera ematen dion sententzia prozesal hutsa ekiditeko, jarraian, demandatuak salbuespen prozesal moduan salatu dituen akats prozesalak konpontzen ahaleginduko da epailea, mamiari buruzko epai bat bermatuz. Funtzio honen egikaritzan, momentu honetan, epaileak badu akats konponezin baten aurrean edo konpongarrria izanda demandanteak konpondu nahi ez badu, epaiketari bukaera ematea. Largespen auto baten bidez egingo du.

Funtzio honen egikaritzan posible da epaileak berak ofizioz somatutako akatsak (jurisdikzioa edo eskumena kasu) ere konpontzen ahalegintzea.

c) Eztabaida mugatzeko funtzioa: Jarraian, edozein epaiketan ematen diren (edo eman daitezkeen) bi eztabaidak mugatuko ditu epaileak. Kasuan kasuko eztabaidatzen diren egitateak (eztabaida faktikoa) eta zuzenbidea (eztabaida juridikoa) zehaztuko ditu. Epaiketa osoko egitateak hiru motatakoak izan ahal izanik, epaileak kasu konkretuan zein motatakoak diren zehaztuko du: liskartsuak edo ez baketsuak (alderdi batek alegatuak, besteak ez onartuak), baketsuak edo ez-liskartsuak (alderdi batek alegatuak, besteak onartzen dituenak, edo biek alegatuak) eta nabarmenak (kultura ertaineko edozeinek ezagutzen dituenak).

Gainera, funtzio honen egikaritzan, ikusiko dugunez, alderdiek lau gauza egin ditzakete: (1) alegazioak argitu eta uzia osatu, (2) egitate berriak edo ezagutza berrikoak aurkeztu,





(3) dokumentuak eta txostenak aurkeztu, eta (4) epaiketan agertu diren dokumentu eta txostenen inguruko iritzia eman.

d) Froga mugatzeko funtzioa: Ondoren, eta jada eztabaida faktikoki eta juridikoki mugatuta, alderdiek froga eskatuko dute. Lehenengo, orokorrean, biek edo batek epaiketa “frogara ekartzea” eskatuko diote epaileari. Xedapen printzipioaren aplikaziopean, alderdiak epaiketaren jabe izanik, ez badute froga egitea eskatzen, ez da froga praktikatu. EK-ren 24. art.-ren eduki garrantzitsu, noski, alderdi batek edo biek epaiketa “frogara ekartzea” eskatzen badute, epaileak beti onartuko du. Jarraian, lehenengo demandanteak, eta gero demandatuak, bakoitzak alegatu dituen egitateen erreferentzian, froga zehatzak eskatuko ditu. Epaileak banaka onartuko edo gaitzetsiko ditu. Aipatutako argudioa aplikatuz, epaileak froga guztiak onartuko ditu alferrikakoak edo desegokiak ez badira.

5. Frogaren ingurukoak

Froga epailea konbentzitzera zuzendutako alderdien jarduera da. Demandanteak bere uzia legearekin bat datorrela demostratzeko erabiliko du froga, eta demandatuak, berriaz, kontrako zentzuan.

Prozesuan, arau orokor legez, egitateak frogatzen dira: demandanteak uziaren oinarri moduan aurkeztutakoak eta demandatuak salbuespen prozesal moduan alegatutakoak. Arau nagusi moduan, zuzenbidea ez da frogatu beharko, epaileak jada ezagutzen duelako (*iura novit curia*).

Alderdi bakoitzak epaiketan berak ekarritako egitateak frogatu beharko ditu. Salbuespen moduan, posible da, epaileak frogatzeko erraztasunaren printzipioa aplikatzea: nahiz eta alderdi batek alegatu, epaileak beste alderdiak frogatu behar duela adieraztea.

Frogabideak Espainian mugatuak (numerus clausus) dira. Frogatu nahi den edozer soilik PZL-ak arautzen dituen ondorengo frogabideekin egin daiteke:

a) Alderdien itaunketa: posizio batek besteak galdera sorta bati erantzutea eskatzea. Egintza honetarako bakarrik joan behar dira pertsonalki alderdiak epaiketara, gainerako guztiak postulazio bitartez garatu daitezkelarik.

b) Dokumentuak, publikoak edo pribatuak, euren forma betekizunei erreparatuz. Prozesu zibileko “froga erregina” dira, kontratuak normalean idatziz egiten direlako.

c) Peritu (edo aditu) froga edo perituaren txostenaren froga: zuzenbidea ez den beste edozein zientzia edo bizitza sozialeko arlo baten inguruan ezagutza duenak prozesu zehatzeko egitateak baloratzea. Alderdiek adituen txostenak aurkez ditzakete froga moduan eta epaiketaren egintzara hauek azaltzera edo horien inguruko abokatuen galderei erantzutea joateko eskatu. Aditua da medikua, albaritaria edo artzaina, bakoitza bere arloan. Pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke aditu.

d) Epailearen miaketa edo azterketa: epaileak bere bost zentzuekin edo horietako batzuekin epaiketaren objektu diren egitateekin harreman zuzena izatea. Adibidez, muga kontu batean, lursailak ikustera joatea, edo dibortzio kasu batean umeekin hitz egitea.

e) Lekukoen galdeketa: Epaiketan hirugarrena da lekukoa, bertan eztabaidatzen ari diren egitateak zuzenean edo zeharka ezagutzen dituen. Horien inguruko galderak erantzuten ditu epaiketako abokatuen eskariz.

f) Hitza, soinua edo irudia erreproduzitzeko baliabideak eta prozesurako garrantzitsuak izanda, hitzak, datuak, zifrak eta eragiketa matematikoak artxibatzea, ezagutzea edo erreproduzitzea ahalbidetzen duten tresnak: teknologia berriak epaiketan frogabide moduan erabiltzea suposatzen du frogabide honek. Teknologia azkar eboluzionatzen duenez, legelariak, PZL segurtasunez jasteko, ez die frogabide zehatzei izenik ematen baina CD, pen-drive, guatsap, ordenadorea bera... horrelako guztiez ari gara.

Frogabide hauek baloratzeko Espainian sistema mixtoa erabiltzen da, frogaren balorazio askea eta balorazio legala uztartuz.



Balorazio askearekin bat, epaileak frogabidea bere jakituria edo kritika zorratzaren arabera, bere bizitzako maximekin bat, baloratzen du. Balorazio askea ez da balorazio arbitrala, EK-ren 120 art.-ak sententziak beti motibatuak izan behar direla agintzen baitu. Epaileak zuzenbidean teknikoak bakarrik denez, gainerako arloetako inguruetako egitateak baloratzeko aditu frogar erabiliko du. Balorazio sistema hau kasik frogabide gehienetan erabiltzen da.

Frogaren balorazio legalaren sistemarekin bat, legea da epaileari kasuan kasuko frogaren nola baloratu behar duen esaten diona. Beraz, ez dauka askatasunik. Balorazio hau aplikatzen zaie frogak dokumentalari eta alderdien itaunketa frogari eta berarekin bat dokumentu batek (publiko, zein pribatu) jasotzen dituen egitateak, pertsonak eta datak egiazkoak dira, dokumentu hori benetazkoa ez dela frogatzen denean ezik. Era berean, alderdi batek, alderdien galdeketaren frogaren medio, berak zuzenean parte-hartu zuen egintza bati buruz galdetua, egintza hori guztiz kontrakoa bada, eta egiazkotasun jotzen badu, gainerako frogak kontrakoa esan ezean, egintza hori benetazkotzat izan beharko du epaileak.

6. Laugarren fasea: judizioaren egintza

Judizio hitzak zuzenbidean, oro har, hiru esan nahi ditu: prozesua; epaileak kasua ebazteko egiten duen gogoeta eta epaiketa arrunt bereziki arruntaren azken aurreko fasea. Fase honetan bi egintza prozesal praktikatzeko dira: epailea present egotea galdatzen duten frogak (denak dokumentu bidezkoa ezik) eta ondorioak.

Ondorioetan, lehenengo demandantearen abokatu mintzatuko da eta ondoren demandatuarena. Bakoitzak bere defendatuaren interesak babestuko ditu, ahoz, azken aldiz: demandatearen epaiketan uzia onartzea, legearekin bat, bidezkoa dela adieraziko du, horretarako beharrezko diren egitateak epaiketan soberan frogatu dituela azpimarratuz. Demandatuaren letratua, aldiz, kontrako zentzuan mintzatuko da, bere frogak goraipatuz -uzia bidezkoa ez dela soberan frogatu duelako- eta kontrako posizioarena gaitzetsiz -uziaren oinarri diren egitateak frogatu ez dituelako-. Azken finean, bakoitzak, uzia eta erresistentzia gailentzea, hurrenez hurren, eskatuko diote epaileari.

7. Adierazpeneko prozesuaren bukaera: erak eta beren ondorioak

7.1. Ohiko era: sententzia, bere motak eta gauza epaituaren ondorea

Ondorioak praktikatu, kasua sententziarako ikusia geratzen dela adierazita, epaileak hilabeteko epean sententzia emango du. Sententzia edo epaia da epaiketa bukatzeko era arrunta. Honako sententziak desberdin behar ditugu:

a) Prozesal hutsak (edo auzialdian absoluziokoak) eta materialak: lehenengoak ez dira epaiketaren mamian sartzen, epaileak hori galarazten dion akats prozesal bat edo batzuk daudela argudiatuz. Epai materialek aldiz, uzia onartu edo gaitzetsi egiten dute, kasua ebartziz.

b) Kontraesanekoak diren sententziak eta kontraesanekoak ez direnak: lehenengo motako epailetan alderdiak prozesuan gatazkan azken arte aritu dira, posizioen bikotasuna epaiketa osoan matenduz. Epaileak jarriko dio bukaera gatazkari sententzian. Kontraesanekoak ez diren sententziek alderdien gatazka era berezian bukatu dela, azken arte liskarrean ibili gabe, adierazten dute. Honen adibide dira amore emate baten edo uko egite baten ondorioz emandako sententziak.

c) Behin-behineko sententziak eta irmoak. Lehenengoen kontra helegiteak tartera daitezke, bigarrenak aldiz ez dute aukera hori onartzen. Sententzia irmoek gauza epaituaren (res iudicata) agintea lortzen edo bereganatzen dute. Gauza epaituaren bitartez epaileak





gizarteari segurtasun juridikoa eskaintzen diote: beraien bitartez esandakoa egi soziala da eta gizarte osoak errespetatu behar du.

Bi motatako gauza epaitua desberdintzen dugu, formala eta materiala. Gauza epaitu formala haren barne (ad intra) ondoreak dira: sententzia irmoarekin bukatu den prozesuko alderdiak eta epailea hartan esandakoa onartu eta errespetatu behar dute. Gauza epaitu materialak, aldiz, haren kanpo ondorenak (ad extra) izendatu nahi ditu: sententzia irmoak erabakitakoa gizarte osoak errespetatu behar du. Errespetu hau bi eratarata edo gauza epaitu materialaren bi funtzioen arabera ulertu behar dugu. Gauza epaitu materialaren funtzio negatiboa edo baztertzalea bitarteko, indar hori lortzen duen sententziak ebatzen duen uzia/k ezin da berriro epaitegietara eraman, Non bis in ídem delako printzipioaren aplikaziopean. Gauza epaitu materialaren ondore positibo edo prejudiziala aplikatuz, etorkizunean res iudicata indardun sententziarekin bukatu den epaiketarekin harremana duen beste epaiketa bat irekitzen bada, ez da zalantzatan jarriko lehenengoan erabakitako guztia, bigarrena baldintzatuz. Adibidez, norbanako bat beste baten seme edo alaba dela esaten badu sententzia irmo batek, eta beranduago haren oinordetzaren inguruan epaiketa bat bada, inork ez du zalantzatan jarriko kasuko seme edo alaba legezko oinordeko bat dela.

7.2. Epaiketa bukatzeko ez-ohiko erak eta beraien arrazoi prozesal eta materialak

Prozesu bat ez-ohiko eran (sententziaren bitartez barik, alegia) bukatu daiteke, arrazoi prozesalak edo materialak bitarteko. Jarrain aukerarik garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

Posible da epaiketa epaileak emandako largespen auto baten bitartez bukatzea. Epaileak uzia ebatzi gabe utziko du arrazoi prozesalak direla eta (normalean akats gogorrak).

Gainera, demandatearen borondatez epaiketari bukaera emateko bi era desberdindu behar ditugu: atzera egitea eta uko egitea.

Demandanteak atzera egiteko borondatea adierazten duenean, berak martxan jarri duen epaiketa bertan behera utzi nahi duela esan nahi du. Uzia ebatzi gabe egonik, posible izango du etorkizunean berriro epaiketa batera bueltatzea hari konponketa emateko eskaerarekin. Demandatearen erabakiak demandatua ukituz, gehinetan honen iritzia entzungo du epaileak. Epaileak auto motibatu bat emango du.

Demandanteak posible du, hala ere, eragin edo ondorio gogorrago bateko erabakia hartzea: uko egitea. Kasu honetan, demandanteak auzitara eramandako uziaren inguruan bere EK-ren 24. artikuluko epaibidezko babes eraginkorraren eskubideari uko egiten dio. Ez da inoiz berriro bueltatuko epaitegietara uzi horrekin. Epaileak kontraesanekoa ez den uzia ebatzen duen (gaitzetsiz) sententziarekin emango dio bukaera epaiketari. Sententzia honek gauza epaituaren ondoreak bereganatzen ditu.

Egin diezaigun so orain demandatuari, honek ere epaiketaren ez-ohiko bukaera eragin baitezake. Horretarako, bere eskuetan daukan tresna prozesala amore ematea da. Honen bitartez demandanteak aurkeztutako uzia/k onartzeko bere borondatea adierazten du. Uzia osorik onartzen du, bere eskaria (petitio) eta haren oinarriak (causa petendi). Ondorioz, epaileak kontraesankorra ez den mamiari buruzko sententzia emango du, uzia onartzen duena. Normalean, amore ematea demandaren erantzunean ematen da (demandatuak demanda eta honi laguntzen dioten dokumentuak -frogak alegia- ikusi ondoren), hala ere, beranduago ere eman daiteke.

Epaiketa bukatzeko azken era, bi alderdien adostasuna eta, normalean, negoziazioa eskatzen duena, transakzioa da. Behin eta berriz esan dugunez, prozesu zibilean interes pribatuak, xedagarriak alegia, ebatzen dira. Horregatik posible da mota honetako gatazkak ebazteko ADR bide batera jotzea, epaiketa aurretik edo behin epaiketa hasita. Alderdiek beraiek bakarrik edo hirugarren baten laguntzarekin akordio bat lortzen badute, epaiketa



bertan behera geratuko da. Akordio hori epaiketara eramaten badute epaileak berresteko, honek transakzio auto bat emango du.

VIII. Hitzezko epaiketa

Adierazpenezko prozesu zibil arruntak bi direla badakigu: arrunta bereziki arrunta eta berezia. Bigarren honen inguruan, orain matizazio garrantzitsu bat egin beharrean gaude: hitzezko epaiketa ez da beti epaiketa arrunt bat, zenbaitetan berezia da (izapidetza bereziduna) eta gainera, beste batzuetan, baita ere sumarioa, hau da, gatazkaren osotasunean sartzen ez dena.

Hitzezko epaiketaren berezitasun garrantzitsuenei erreparatu, esan behar hiru motatako demanda bidez has daitekela: arrunta (prozesu arrunt bereziki arruntarentzat araututakoa), laburra (uziaren oinarriak jasotzea galdatzen ez duena) edo inprimaki normalizatuan jasotakoa.

Gainera aipatu behar, berriki, epaiketa mota hau aldatu egin dela 42/2015 legearen bitartez, desnaturalizatuta geratu delarik. Ordura arte, hitzezko epaiketan demanda eta sententzia baino ez ziren idatziak, gainerako izapidetza guztia ahozko ikustaldi batetan garatuz (demandaren erantzuna eta frogak bereziki). Orain, aruketa berriarekin bat, demandaren erantzuna idatzia da eta ikustaldia bakarrik alderdiek eskatzen badute burutuko da. Burutuz, epaiketa arrunt bereziki arruntean judizio aurreko entzunaldian (bere lau funtzioekin) eta epaiketaren egintzan (froga eta ondorioak) egiten direnak egingo dira.

IX. Helegiteak

1. Kontzeptua eta motak

Epaileek akatsak edo okerrak egiteko aukerak justifikatzen du errekurtsio edo helegiteen existentzia. Zehazki, epaileek bi motatako okerrak egin ditzateke: faktikoak (egitateak zehazterakoan) eta juridikoak (legea aplikatzerakoan). Bi horiek konpontzen ahalegintzeko helegiteak existitzen dira.

Oso garrantzitsua da azpimarratzea, arlo zibilean, EK-ren 24. artikulua ez duela helegiteen beharrezan edo derrigorotasuna galdatzen. Beste hitz batzuetan, arlo zibilean posiblea da gatazka juridikoak auzialdi bakarrean ebaztea. Horregatik, eremu zibilean helegiteak badira (eta izan badira), legegileak nahi duelako da, ez derrigorrezkoa delako. Hori bai, legeak aurreikusten baditu, hori errespetatu, berauek tarteratzeko eskubide EK-ren 24. artikuluaaren parte da.

Helegite moten inguruan, ondorengo sailkapena egin behar dugu.

a) Helegite debolutiboak eta ez-debolutiboak: helegitearen ebazpenean parte hartzen duen/duten epaitegiei erreparatu. Helegite debolutiboetan bi epai-organok parte hartzen dute: helegiten den ebazpena eman duen epai organoa (ad quo) eta horren goragoak (ad quem). Lehenengoak helegitea prestatzeko baimena eman behar du, errekurritzaileak bere aurrean helegitea prestatuz, eta jarraian goiko organora bidaliko da izapidetutakoa, hark erabaki dezan. Helegite debolutiboak dira apelazioa eta kasazioa. Ez-debolutiboetan aldiz, epai organo bakar batek parte hartzen du: helegiten den ebazpena eman duen epai organo berberak erabakitzen du helegitea. Honen adibidea da berraztertzea.

b) Helegite arruntak (edo ohikoak) eta bereziak (ez-ohikoak): beroien artean desberdintzen da legelariak helegiteak tarteratzeko arrazoi zehatzak (numerus clausus) aurreikusten dituenaren arabera. Ohiko helegiteak dira edozein arrazoiengatik tartera daitezkeanak, legelariak ez baititu arrazoi zehatzak aurreikusten. Ez-ohiko helegiteak edo bereziak,





aldiz, legelariak aurreikusten dituen arrazoiengatik baino ezin dira tarteratu. Apelazioa da helegite arrunt tipikoa, kasazioa aldiz ez-ohikoa

c) Helegite prozesalak eta materialak: Helegite bat prozesaltzat edo materialtzat jo dezakegu bi elementuri erreparatuz: (1) zein arrazoiengatik tarteratzen den (prozesala ala materiala) edo (2) helegiten den ebazpenaren izaeraren arabera (erabaki prozesala edo materiala). Berraztertzea da helegite prozesalaren adibide argiena, Kasazioa aldiz, materialarena.

2. Berraztertzea

Helegite ez-debolutiboa da, erabakia eman duen organo judizial berberak ebatziz (kasuan kasuko epaile edo salak). Horregatik, batzuek helegite baino nahiago dute erremedio deitzea. Helegite prozesala da, batetik, arrazoi (akats) prozesalengatik tarteratzen delako, ustez epaileak PZL-ren formak errespetatu ez dituelako, eta bestetik, helegiten dena erabaki prozesal bat (ebazpen interlokutorio bat alegia) delako.

3. Kexa

Helegite instrumental bat, nagusi baten menpekoa edo osagarria. Jakin dakigunez, helegite debolutiboak errekurritu nahi den ebazpena eman duen epailearen aurrean (ad quo) prestatzen dira, gero prestatuta, goragokoak (ad quem) erabakitzeko. Kexaren bitartez, prestaketa horren ukapena goiko organora eramaten da –helegite debolutiboa ezagutu beharko lukeenera- honek ukapena egokia den edo ez esateko. Egokia bada, ez da ezer gertatuko; onartuz gero, beheko organoari helegitea onartzeko aginduko dio. Beraz, helegite honen bitartez errekurritzailearen babesgabezia ekiditzen da. Gainerakoan, kexa bera helegitea debolutiboa da, arrunta eta bere bitartez ondorengo autoak helegin daitezke: (1) apelazioa onartzen ez duena, (2) urrapen prozesalagatiko helegitea onartzen ez duena, eta (3) kasazioa onartzen ez duena.

4. Apelazioa

Prozesu zibileko helegite tipikoa da, bigarren auzialdiarekin lotua. Hala ere, honen inguruan esan beharreko lehenengo gauza da Espainian ez dagoela benetako bigarren auzialdirik, ad quem organoak ez duelako berriro helegiten den prozesu osoa berrikusten, apelatzeko kari edo arrazoiak baino. Helegitea arrunta eta debolutiboa da, eta bere arrazoiengatik prozesala edo materiala. Helegingarriak aldiz, hiru erabaki dira: (1) lehen auzialdian emandako sententziak, (2) lehen auzialdiari bukaera ematen dioten behin-betiko autoak, eta (3) legeak berariaz adierazten dituen behin-betikoak ez diren (beraz, behin-behinekoak diren) autoen kontra.

5. Kasazioa

Hirugarren auzialdiarekin lotuta, apelazioarekin egin dugun matizazio bera egin behar dugu: ez da benetako hirugarren auzialdia, Auzitegi Gorenak ez baitu kasua osorik, berriro, aztertzen, errekurritzaileak alegatutako arrazoiak baino.

Aurreko PZL-rekin (1881. urtekoa) bi motatako kasazio desberdintzen ziren, arrazoi prozesalaren oinarritutakoa eta arrazoi materialetan oinarritutakoa. Egungo legeak baino (1/2000) bi horiek desberdindu eta kasazioa eta arau hauste prozesalagatiko helegitea arautu ditu, bi helegite autonomo eta osagarri sortuz.

Bigarren auzialdian magistratuek arau materialak urratu dituztelakoan tarteratzen da. Helegite debolutiboa, ez-ohikoa eta deuseztatzailea, onartuz gero ad quem organoak helegindako erabakia deuseztu eta berak berri bat eman edo behekoari emateko agindu baitie-





zaioke. Horrela Espainia osoan arau materialak (Koder Zibila, Merkataritza Kodea eta bi arloetako arau bereziak) era berean aplikatzen direla bermatzen da.

Eragindako arauekin bat, bi motatako kasazioa desberdindu behar dugu: estatala edo komuna edo autonomikoa. Lehenengoaren bitartez, Auzitegi Gorenak Espainia osoan aplikatzen diren arauen uniformitate kontrolatzen du. Bigarrena, aldiz, zuzenbide zibil berezi edo propio bat duten Erkidego Autonomoetako Justizia Auzitegi Nagusiek ezagutzen dute. Beren lurraldeko arau pribatuak azken jurisprudentzia emango dute.

6. Urrapen prozesalagatiko helegitea

Prozesuko arauen inguruko “hirugarren” auzialdia da. Ez-ohikoa eta debolutiboa bigarren auzialdiko epaileen erabakien kontra tarteratzen da, urrapen prozesalak salatuz. Kasazioak bezala izaera deuseztatzailea dauka.

Printzipioz helegite hau Justizia Auzitegi Nagusiek ezagutuko beharko lukete, baina behin-behinean Auzitegi Gorenak ezagutzen du (PZL-re 16. azken xedapena). Erabaki honen atzetik epai boterearen deszentralizazioaren kontua dago.

7. Legearen intereserako helegitea

Helegite hau aurrekoaren erreferentzian ulertu behar dugu. Egunen batetan Espainiako Justizia Auzitegi Nagusi desberdinek urrapen prozesalagatiko helegitea ezagutzen dutenean, ondore bat ekidin ezina izango da: lege prozesala interpretatzerakoan iritzi desberdinak ager daitezke. Hori zuzentzeko eta Espainian bakarra den arau prozesala ulertu eta interpretatzerakoan iritzi bakarra egoteko sortu zuen legegileak legearen intereserako helegitea. Beraren bitartez, Auzitegi Gorenak Espainia osorako arau prozesalaren interpretazioa bakarria emango du.

X. Babes betearazle zibila

Autotutela, arau orokor moduan, debekatuta badago, baieztape hori ez dugu bakarrik adierazpeneko babeserako ulertu behar. Bere alde kondenazko sententzia bat daukan norbanakoak ere ezin du hori indarrez betearazi. Hori ere autotutela litzateke eta debekatuta dago. Horregatik bere alde kondenazko sententzia bat daukan pertsonak epaileetara joan behar du eta haiei eskatu betearazteko. Hauek indarra erabili dezakete horretarako. Estatuaren indar legitimoa da, ordena publikoa eta bake soziala bermatzeko, herritarrok epaileei aintzatetsitakoa. Betearazpen tutela EK-ak aurreikusten du 117. artikuluan.

Babes exekutiboa eskatzeko, herritarrak demanda exekutibo bat tarteratuko du, prozesu exekutiboan ezagutuko dena. PZL-ren III liburuak arautzen du exekuzio-prozesua. Demanda exekutiboaren muina uzi exekutiboa da eta berau derrigorrez titulu-exekutibo batetan oinarritu behar da. Titulu exekutiboa betearazpena motibatzen eta justifikatzen duen dokumentua da. Dokumentu honek betebeharrak jasotzen du, exekututzailea hartzekoduna duena eta exekututua zorduna. Ezin daiteke betearazpenik eman exekuzio-titulu gabe («*nulla executio sine titulo*»).

Titulu exekutiboak numerus clausus dira, legeak aintzatetsiak baino ez alegia. Kondenazko sententzia eta laudo arbitrala dira tipikoak.

Bi motatako exekuzio desberdindu behar ditugu: behin-behinekoa eta behin betikoa.

Behin-behineko exekuzioaren ezaugarri nagusia da, betearazpen titulu moduan erabiltzen den kondenazko sententzia heleginda dagoela. Horregatik da behin-behinekoa exekuzioa, helegiteak exekuzioa oinarritu duen sententzia deusezten badu, exekutututako guztia atzera bota beharko delako. Edozein kasutan, xedapen printzipioak betearazpen prozesua ere





informatzen duen heinean, exekutzaileak behin-behineko exekuzioa eskatu beharko du eta helegiteak sententzien betetzea atzeratzeko aitzakia huts moduan erabiltzea ekiditzea du helburu.

Behin-betiko exekuzioan ez dago behin-behinekoan dagoen arriskurik, titulu exekutiboa kondenazko sententzia bada berau irmoa delako. Bi motatako behin-betiko betearazpen desberdintzen dira: diruzko betearazpena eta diruzkoa ez den betearazpena.

Diruzko betearazpenean dinamika judiziala erraza da oso: zordunari bere ondaretik ondasun bat kentzen zaio, enkante publikoan saldu, dirutan bihurtzeko eta honekin hartzekodunari ordaindu. Soberakinik geratzen bada, zordunari bueltatzen zaio. Zehatzago, demandanteak exekuzio demanda tarteratu ondoren, justizia administrazioaren letratuak betearazpena abiarazten du, zehatzapen dekretua emanez. Aurrera jarraitu baino lehen, zordunari ordainketa egiteko aukera ematen zaio. Egiten ez badu, zorraren zenbatekoa estaltzeko hain ondasun bahitu edo enbargatuko zaizkio. Ordainketari aurre egiten ez badio, azkenean, ondasunok enkante publikoan salduko dira, lortutakoa hartzekodunari emateko.

Diruzkoak ez diren betebeharrak dira zordunari, hartzekoduna asetzeko, zerbait egitea (edo ez) edo ematea (edo ez) agintzen diotenak. Kasu hauetan legeak betearazpen espezifikoak gailentzen du (EK-ren 118 eta BJLO-ren 18.2 art.-ak). Hala ere, berau ezinezkoa denean (ezintasun naturala edo juridikoa bitarteko) diruzko betebeharrak generiko bihurtzen dira eta diruzko exekuzioaren dinamika judiziala aplikatzen da.

XI. Kautelazko babes zibila

Epaibidea edo jurisdikzioaren akatsik nagusia geldotasuna da. Justizia beti berandu omen dabil. Horregatik, denboraren pasatzeak, adierazpenezko eta exekuziozko babesaren azken emaitza izan ditzakeen eragin negatiboak ekiditeko kautelazko babes existitzen da. Epaileari haien azken emaitza bermatzeko behin-behineko neurri (kautelar) azkar bat eskatzen zaio. Horrela, azken tutela honek, aurrekoekin batera, herritarron epaibidezko babes eraginkorra bermatzen du.

Kautelazko babes demanda kautelarraren bitartez eskatzen da, uzi kautelar batekin eta berau erabakitzeke kautelazko prozesua jarraitu behar da. Berau ondo ulertzeko kautelazko neurrien ezaugarriak eta epaileak hauek emateko galdatzen diren betekizunak azaldu behar ditugu.

Bost dira kautelazko neurrien ezaugarriak: instrumentalitatea, behin-behinekotasuna, aldibaterakotasuna, aldagarritasuna eta proportzionalitatea.

Kautelazko neurriak instrumentalak dira, adierazpenezko babesaren edo exekuzioaren azken emaitza bermatzeko erabiltzen baitira. Normalean, denboran bi horiekin batera ematen dira. Posible da adierazpenezko demanda tarteratu aurretik kautelazko demanda tarteratzea, baina 20 eguneko epean hura aurkezten ez bada, kautelazko neurriak bertan behera gertatuko dira.

Kautelazko neurriak behin-behinekoak dira, bere helburua betetzen dutenean (adierazpenezko edo exekuziozko prozesuaren azken emaitza babestea) desagertu egiten baitira. Beste era batera esanda, aldi baterako bakarrik ematen dira. Gerta liteke baina, kautelazko neurri bat, sententziaren eduki bihurtzea eta horregatik behin-betiko bihurtzea. Baina orduan ez litzateke kautelazko neurri, sententziaren zati baino.

Bere helburu nagusiaren betekizun, kautelazko neurriak aldagarriak dira. Epaile batek neurri bat eman dezake eta bere xedea betetzeko beharrezkoak diren aldaketak agindu ondoren. Edozein kasutan, ezin dugu ahaztu prozesu zibilararen eremuan, kautelazko babesaren ere xedapen printzipioa aplikatzen dela.

Azkenik, kautelazko neurriak proportzionalak behar dute izan. Neurria babesten den helburuarekin bat etorri behar da bere eraginean. Horregatik, ezin daiteke, adibidez,





diruzko kondenazko sententzia bat babesteko, honek jasoko duen munta baino gehiagoko gordailu bat eskatu.

Epaile batek kautelazko neurri bat emateko bi baldintza bete behar dira: eskubide onaren itxura (*fumus bonis iuris*) eta berandutza prozesalaren arriskua (*periculum in mora*). Lehenengoaren arabera, ziurtasun osoa izan gabe, demandanteak martxan jarri duen prozesuan (adierazpenezkoa zein exekuziozkoa) arrazoia izan dezakeela -bere eskubide subjektiboa onartzen duen azken erabaki bat lor dezakeela alegia- uste izan behar du epaileak. Bestalde, bigarren betekizunarekin bat, epaileak kautelazko neurria ematen ez badu, prozesu nagusiko azken emaitza arriskuan egon daitekeela, horretarako behar den denbora demandatuak (edo exekutatuak) hura bete ezinezko bihurtzeko erabili dezakeela uste izan behar du.

Epaileak kasu zehatzean bi betekizun horiek ematen direla uste duenean, kautelazko neurria emango du, baina hau praktikan jarri baino lehen demanda kautelarraren tarteratzaileari kauzio bat eskatuko dio. Hori eman gabe ez da neurria implementatuko. Kautela honen helburua neurriarekin demandatu/exekutatuari sor dakizkion kalteei aurre egitea da.

Kautelazko neurriak gure ordenamendu juridikoan *numerus apertus* dira. PZL-ren 722 art.-ak beraien zerrenda bat jasotzen du, baina posible da, kasu zehatzean, abokatuek neurri desberdin eta horretarako berariaz pentsatutakoa eskatzea. Gauzak horrela, aipatutako artikulua ondorengo kautelazko neurriak aurreikusten ditu: (1) ondasunen behin-behineko enbargo edo bahitura; (2) Interbentzioa eta administrazio judiziala; (3) gauza higigarriaren gordailua; (4) ondasunen inbentarioa; (5) demandaren anotazio prebentiboa; (6) beste anotazio erregistralak; (7) Behin behineko gelditzea, edo aldi baterako abstentzioa, edo jardueren, jokabideen edo prestazioen egikaritzaren debeku tenporala; (8) Zilegia ez den jardueraren bitartez lortutako diru sarreraren interbentzioa eta depositoa, edo jabetza intelektuala ordaintzeko emadako kantitateen kontsignazioa edo depositoa; (9) Obren, objektuen eta materialen aleen depositoa; (10) Akordio sozialen esekipena; eta (11) legeak aurreikusitako beste batzuk.